

SAGASTIA-MANZANAL



2017KO UDABERRIA Sagardoaren Lurraldean: loraldiaz gozatzeko hainbat jarduera

SAGARDOAREN LURRALDEA · 06/04/2017 · 16:12

Sin comentarios



Udaberrian sartzearekin batera, Sagardoaren Lurraldeko sagarrondoak loratzen hasi dira eta sasoi hau ospatzeko, datozen hilabeetarako hainbat ekitaldi antolatu dira.

Japoniako *Hanami*-aren antzera, Sagardoaren Lurraldean urteak daramatzagu sagastien loraldia ospatzen. *Hanami* hitzak, "Loreak ikusi" esan nahi du japoniarrez. Urtero-urtero, japoniarrak parkeetara abiatzen dira gereziondoen (*sakura*) loraldiaz gozatzera. Usadioa oso errotuta dago japoniako gizartean eta lagun nahiz senideak elkartzeko ohitura dute. Ezberdintasunak ezberdintasun, ohitura hori

geurera ekarri eta eta geure modura ospatu nahi dugu, sagardoaren ekoizpenaren unerik ederrenetako bat jendearengana gerturatuz.

Dagoeneko Sagardoaren Lurraldeko sagarrondoak loratzen ari dira eta datozen asteetan, petalo zuriek Euskal Herriko sagastiak estaliko dituzte. Lore horietatik haziko dira, hain zuzen, sagardoa egiteko sagarrak. Japonian loraldiaren iragarpena (*sakurazensen*) meteorologia bulegoak egiten badu, Sagardoaren Lurraldean ekoizleek berak dira loraldia noiz izango den jakinarazten dutenak.

Antolatutako ekimenen artean, azpimarratzekoak dira **udaberriko Sagardoetxeako bisitak**. Garai honetan polinizazio prozesuaren inguruko azalpenak ematen dira museoan, sagardoaren ekoizpenaren alderdi ezezagun bezain garrantzitsua dena, eta bisitariak sagarrondoek eskaintzen duten paisaiaz gozatzeko aukera izaten dute, naturarekin kontaktuan.

Astigarragako Herri Eskolako umeek ere Sagardoetxeako sagastia bisitatzen dute, eta bisitaldian, erleen lana eta sagarrak lortzeko polinizazioaren prozesua ikasten dute puzzle bat irudikatu eta eskuzko polinizazioa landuaz.

Maiatzaren 6an, arratsaldeko 17:00etan, **musika, dantza eta antzerkia uztartuko dituen ikuskizuna** ospatuko da Sagardoetxeako sagastian eta bertan, Astigarragako Antzerki Eskola, Astigar dantza taldea eta Norberto Almanadoz Musika Eskolako haurrek parte hartuko dute. Festa girotzeko, 12:00etatik 13:30etara bitartean familientzako "**Loreekin egindako bitxigintza tailerra**" izango da Idoia Lizeagaren eskutik **loreekin eskumuturrekoak egiteko**.

Maiatzaren 18an, **Museoen Nazioarteko Eguna** ospatuko da Sagardoetxean eta arratsaldean zehar, 16:00etatik 19:30etara bitartean, Sagardoetxeako baratzeko eta sagastiko lanak egingo dira familiekin, besteak beste: landaketak, belar txorrokoak, txorimaloak, txorintzako kaiolak, etab. Aurten, gainera, Museoen Nazioarteko Egunaren ospakizuna aste guztira zabalduko da eta "Sagardoetxeako baratzak lantzen" lemapean, lan ezberdinak egingo dira sagastian.

Tags: Floración, loraldia, manzanos en flor, Sagardoetxea, Sagastiak loretan

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

 RSS Feed

 Twitter

 Facebook

Buscar / Bilatu



Categorías

[Agenda-Agenda](#)
[Azokak-Ferias](#)
[Ekitaldiak-Eventos](#)
[Errezetak-Recetas](#)
[Esperientziak-Experiencias](#)
[Formazioa-Formación](#)
[Gastronomia-Gastronomía](#)
[Historia-Historia](#)
[Kultura-Cultura](#)
[Lehiaketak-Concursos](#)
[Museos-Museoak](#)
[Prensa-Prensa](#)
[Sagarra-Manzana](#)
[Sagastia-Manzanal](#)
[Sidra-Sagardoa](#)
[Sidrerías-Sagardotegiak](#)
[Sin categoría](#)
[Turismo-Turismo](#)

Post Recientes


[Sagardofest 2017](#)


[Merkatuan dira Euskal Sagardoa jatorri deitura duten lehenengo botilak](#)

[Hernaniko Altzueta sagardotegiak irabazi du Foru Aldundiaren](#)

Anterior post
ALMA, Asociación francesa de los amigos de Aymak Djangaliev para la salvaguardia del Malus Sieversii ALMA, Malus Sieversii-aren mantenerako Aymak Djangaliev-el lagunen Frantziako Elkarte

Siguiente post
Calendario práctico de actividades en el manzanal: marzo, abril y mayo Sagastietako jardueren egutegi praktikoa: martxo, apirila eta maiatza

Tu comentario / Zure komentarioa



Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar



Gipuzkoako XVI. Sagardo
Lehiaketa



Bihar erabakiko da
Gipuzkoako Foru
Aldundiaren XVI. Sagardo
Lehiaketako irabazlea



“SAGARDOA ETA
ITSASOA”: Bailearen
arrantzaren abenturak
ezagutu!

Comentarios recientes

Elias Elorza Ugarte en [Sektorea. Gipuzkoako Foru Aldundudiko Fraisoro Ingurumen eta Nekazal Laborategiak estatuko lehendabiziko ENAC ziuhtagiria lortu du sagardoaren dastaketarako.](#)

Arlere en [“Sagardoaren Lurraldea ezagutuz”, Urumearen sekretuak ezagutzeko ibilaldia.](#)

Sagardoaren Lurraldea en [Maiatzak 25: Astarbe sagardotegiaren 450. urteurrena.](#)

NAIARA en [Maiatzak 25: Astarbe sagardotegiaren 450. urteurrena.](#)

Sagardoaren Lurraldea en [“Sagarrondotik Sagardora” 2017ko ikastaro praktikoa Usurbilen](#)